



## UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2017/10/31)</b>  Hurrengo saioa: 2017/11/14	Web orria	“Itsaso ezagutu” atalean herritarrek herrian arlo profesionalean egiten duten aktibitatearen aipamena azaltzeko aukera eskaintzea adosten da. Bertan aktibitatearen deskribapen labur bat, arduradunaren izena, aktibitatearen helbidea, harremanetarako telefono, e-mail edo web orria, argazkia (aukeran),... jartzeko eskaintza egiten da. Horretarako prestatu den formularioari erantzun beharko litzaioke.	Jasotzen diren eskaerak aztertu eta web orrian txertatu.
	Herri Batzarreko akta	Herri Batzarreko aktari forma eman zaio eta gaztelaniazko bertsioa egindakoan banatuko da.	
	Administrariaren lanpostua	Lanpostu honetara datorren pertsonak bete beharreko eginkizunak, eskatzen diren baldintzak, aukeratzeko erabiliko diren irizpideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa definitu dira.	Deialdi publikoa egin.
	Garbitzailearen lanpostua	Lanpostu hau beteko duenak Udalak dituen beharrei erantzungo die: momentuz Itsasoko Udala, ludoteka eta elizatariko lokala garbituko lituzke.	Deialdi publikoa egin.
	Erretaula	Diputazioko J. Maroto eta Alberto Santana historiatzailearen bisita aipatu da eta erretaularen balio artistiko eta historikoaren aitortza azpimarratu da. Azaroaren 11n izango den bisita gidaturako izen-emate orria prestatu da.	



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2017/11/03)</b>  Hurrengo saioa: 2017/11/17	Erretaula	Dagoeneko 35 lagunek izena eman dute azaroaren 11an andamioetan hurbiletik erretaularen polikromiak ezagutzeko	Guztiei dagozkien txandaren berri emango zaie goizeko 10.15etatik eguerdiko 14.15enak bitarte.
	Auzolana	Aurreikusten hasi gara egin nahi ditugun lanen beharrak: a) Elizaren pareko lorategia. Sakristia azpian dauden egurrak ikusi ea balio duten. Zein lur mota dagoen aztertu. Zein diseinu burutu eta zein behar: egurrak, harriak, lurra.. Arduraduna zehazteko. b) Epeldera doan bidearen garbiketa. Motozerra eta desbrozadorekin 6-8ko taldea. Arduraduna: Kaio c) Garbiguneei kanpotik egurra babesteko produktua ematea. Talde bat Alegian eta bestea Mandubian. Zein protektore eman aztertzeko bi arduradun geratu dira, baita prezioak jakiteko ere. d) Artxibo historikoa ekartzeko taldea. Ikusiko da noiz ekin lan honi, besteak antolatu ondoren.	Auzolana antolatzeko, ostiralean, hilak 10, arratsaldeko 19.30etan deituko da bilera. Deialdia egin eta banatu.
	Ibur Hipika	Ibur Hipikakoek herritarroi honako eskaintza egin digute: orduko 20€ izan beharrean 15€. Eta 10 orduko bonoak 150€ izan beharrean, Udalak 50€ subentzionatuko luke eta 100€ ordaindu beharko litzateke. Aukera dago larunbatetan norberak nahi duen orduan bertara hurbiltzeko.	Deialdia egin herritar guztiek jakin dezaten eta izena emateko epea jarri
	Pertsona helduentzat Ormaiztegin egitasmoa	Ormaitegi+Itsaso+Gabiriak abian jarri dute 2019an amaituko den egitasmo bat, non gure herrietako pertsona heldu autonomoek aukera izango duten astean 3 egunez eta aldiko 3 orduz, hainbat jarduera erakuslearekin egiteko. Egoitza proiektatuta dago eta zerbitzu hau nola bideratu ere aurreikusten ari dira (erdia biztanleen arabera eta beste erdia erabiltzaileen arabera ordainduz). Denera, urteko zerbitzuaren kostea 12.000€ inguru izango da.	Hilero alkateek egiten duten lan bileretan lantzen jarraituko dute.
	Josteko makinari buruzko ikastaroa	Abenduko zubian egitea aurreikusten da, beti ere, taldea osatzen bada	Deialdia 15 egun barru egingo da



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena Alegiako bilera (2017/11/04)</b>  Hurrengo saioa: 2017/11/11	Eserlekuak	Zein motatakoak jarri aukeratu da (190€+BEZa) eta 4 erostea oraingoz: Alegiako bide gorrirako, S Lorentzo bidean, Ostatu azpialdean Oria kalean eta Itsusturrin	Eskaera egingo da eta iritsi bezain pronto kokatzeko eskatu herri-langileari
	Movistar	Konektibitatea posteetan kable bidez jartzeko eskatutako baimenak jaso dira eta bidali ere bai	Galdetuko da ea baimena eman dutenei bakarrik jarriko zaien (Gabiriakoek esan duten bezala)
	Leader deialdia	Aste honetan argitaratu da eta xedea eta helburuak aztertu dira. Bi proiektu aurkeztuko ditugu (Alegiako parkea eta Udaletxearen egokitzapena).	Deialdi osoa aztertuko dugu gure proiektuen justifikapena ondo doitzeko
	Hurrengo bilera	Astebete aurreratzea erabaki da, auzolanarekin kointziditzen zuelako eta Leader deialdiak premia duelako.	Azaroaren 11n izango da, 19:00etan.